

Martxoaren 10
GARIZUMAKO 1. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako lehen igandea dugu gaur, Pazko festaburuari begira, Kristoren nekaldia, heriotza eta piztuera ospatzeko prestatuz.

Bataioa hartu izanak zer esanahi duen konturatzeko aldia ere badugu hau: pazko gaubeila santuan berrituko baitugu, Kristoren argitan, gure bataioko hitza.

Basamortura eraman eta bihotzera mintzo zaigu Jainkoa. Garizuma dugu basamortu hori, Jainkoaren Hitza entzun eta berarekin topo egiteko. Egin dezagun Garizumaren esperientzia jatorra!

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoak ez du bekatariaren heriotza nahi, baizik bihotz-berri dadila eta bizi. Ospakizun honen hasieran, jar dezagun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin diezaiozun:

—Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez / jaiotza berria eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure barruan bihotz berria sortzeko, / Espiritu Santua bidali diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiereko salbamena ekarri diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
Garizumako elizkizunek eta penitentziek
egiazko bihotz-berritzera eraman gaitzatela,
Kristoren misterioa hobeki ezagutu eta bizi dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bere Herriarekin duen hartu-eman, elkarrizketa jatorra da: salbamen-historia berritzailea. Esperientzia horixe da berritu nahi duguna eta bizi nahi duguna. Jainkoaren Hitza dugu horretarako lagunik bikainena, otoitzarekin batera.

Lehenengo irakurgaia (Dt 26, 4-10)

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitz egin zion herriari: «Apaizak, zure eskutik lehen fruituak hartu eta Jaunaren, zure Jainkoaren, aldare aurrean jarriko ditu.

Orduan, Jaunaren, zure Jainkoaren, aurrean honela esango duzu: «Nire aita, harantz-honantz zebilen aramear bat zen; Egiptora jaitsirik, arrotz bizi izan zen han, lagun bakar batzuekin; baina gero herri haundi egin zen jendez eta indarrez.

Egiptoarrek gaizki erabili gintuzten eta atsekabetu, eta uztarri latza ezarri ziguten. Orduan guk Jaunari, gure arbasoen Jainkoari, deiadar egin genion, eta Jaunak gure deiadarra entzun zuen. Gure atsekabe, neke eta estualdia ikusirik, esku azkarrez eta beso zabalez atera gintuen Egiptotik, beldur-ikara, ezaugarri eta egintza harrigarrien artean. Orain gauden toki honetara ekarri gintuen eta

lur hau eman zigun, esnea eta ezta darion lurra. Horregatik ekarri ditut hona, Zuk, Jaun horrek, eman didazun lurraren lehen fruituak».

Jaunaren, zure Jainkoaren, aurrean utziko dituzu, eta Jauna, zure Jainkoa, ahuspez gurtuko duzu».

Erantzun-salmoa (Sal 90, 1-2. 10-11. 12-13. 14-15)

Zau - de ni - re - kin, Jau - na, la - rri - al - di - an

Goi-goikoaren babespean zaudena,
gutziz Ahaltsuaren itzalpean bizi zarena,
esaiozu Jaunari: «Zu zaitut ihesleku eta gaztelu,
ene Jainko, Zugan nago sendo.» R/.

Ez zaizu gaitzik alderatuko,
ez izurririk zure etxolara hurbilduko.
Agindu baitie aingeruei zutaz,
zaindu zaitzatela bide guztietan. R/.

Eramango zaituzte eskuetan,
oina oztopa ez dakizun harrietan.
Suge ta sugegorri gainean duzu oina kokatuko,
lehoi eta herensugea azpian zapalduko. R/.

«Niri itsatsi zaidanez gero, onik aterako dut,
nire izena ezagutu duenez gero, babestuko dut.
Deituko nau eta Nik hari entzungo, '
berekin izango nau larrialdirako,
askatuko dut eta ospetsu egingo.» R/.

Bigarren irakurgaia (*Erm 10, 8-13*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Zeure ondoan duzu hitza: zeure ahoan eta zeure bihotzean». Hitz hori da, guk hots egiten dugun sinesmenaren berria. Izan ere, zeure ahoz aitortzen baduzu, Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu, Jaungoikoak hilen artetik biztu zuela, salbatuko zara. Bihotzez sinesteak zuzentasuna dakarkigu, eta ahoz aitortzeak, salbamena. Liburu Santuak honela dio: «Harengan sinesten duena, ez da lotsatan geldituko».

Ez bait dago bereizkuntza egiterik, judutar izan nahiz greziar izan; bat-bera da guztien Jauna, Hari dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten dion guztiak iritsiko du salbamena».

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Mt 4, 4b*)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

Gizona ez da ogiz bakarrik bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den
hitz guztitik baizik. R/.

Ebanjelioa (*Lk 4, 1-13*)**Homiliarako argibideak**

*Gizakia ez da ogiz bakarr*ik bizi

Gizakiak ez du izan, sekula, gaur egun beste aukera, dirua edukiz gero. Eta, alderantziz: agian, bazterkeriaren kultura honek eragindako milioika pertsonaren miseriak ez du, sekula, horrenbeste samin eragin. Gaur egun, ikaragarriak dira tentazioak; askotan, baina, infernu bete-betea ekartzen dute. Euren duintasuna ere galdu dute diru erraza nahi izan dutenek. Fededunak ere ez gaude tentaziotik eta bekatutik salbu. Aita Santuak maiz salatzen ditu Elizako pertsonen bekatuak, karrera egin nahian. Jainkoaren errukiari heltzea eta beharrean daudenen aldeko **errukizko lan** bihurtzea da konponbidea.

Jesusek ere salbazio merkea eta ikusgarria eskaintzen zuten mesianismo faltsuen tentazioa esperimendu zuen bizitza publikoari ekin zionean. Deabrua espezialista da eskaintza handiak prezio merkean egiten (Lk 4,1-13). Hark ezin hobeto daki gizakiaren beharrak eta nahiak manipulatzeko. Lehen tentazioak gizakiaren **behar naturalak** asebetetzera murrizten du salbazioa. Gutxi axola du konponbidea automatikoa eta mirarizkoa izateak, deabruak harriak ogi bihurtzeko proposatzen diotenean bezala, edo edozein sistema politiko-sozialetik etortzea. Jesusen erantzunak erakusten du gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren Hitza behar duela (Rm 10,8-13). Badago ogi goserik, noski, baina beste gose batzuek agerian uzten dute gizakiaren mamia; Hitzaren entzule izaki, Jainkoarekiko harremanari zabalik dagoenarena. Asmatutako beharrak asebeste eta gizakiaren benetako beharrak ahazten dituen kontsumo-gizarteak ito egiten du Jainko gose hori.

Bigarren tentazioa da **botere politikoak** salbatzea itxarotea, horren sistema zeinahi dela ere, demokratikoa, diktatoriala edo totalitarioa. Sistema politiko orok gizarte komunitateko kideen baldintzarik gabeko atxikitzea bilatzen du, gehiago gutxiago, funtzionatu ahal izateko. Horretarako, zoriona eta giza arazo guztiak konpontzea

agintzen du. Politikari gutxi ausartzen dira esaten badirela politikoki ezin konpon daitezkeen giza arazo batzuk, beste konponbide batzuk behar dituztenak. Totalitarismoek ez ezik, demokraziek ere eskaini nahi diete salbazioa herriei. Balio demokratikoen izenean, gerra egiten da beste herrialdeetan demokrazia inposatzeko, hango herritarrek hori nahi duten edo horretarako prest dauden galdetu gabe. Botere-sistema Jainko antzeko bat bihurtzen da, azken finean, eta erabateko aitortza eskatzen du.

Hirugarren tentazioa tentatzailearen hedatze bikaina da. Manipulatzaile iaio gisa agertzen da. Gai da Jainkoaren Hitza ere erabiltzeko, bere helburuak lortuko baditu. Jainkoak mirariz salba gaitzan nahi izatean datza tentazioa, gure munduaren funtzionamendu arrunta errespetatu gabe. Batere arrazionala ez den Jainko arbitrario bat edukitzea da kontua, azken batean, gure kapritxora dagoena. Jainkoak ez badu mundua guk nahi bezala gidatzen, ez da Jainkoa, edo Jainkorik ez dagoela esaten da. Mundua nola gobernatu behar duen erakutsi nahi zaio Jainkoari. Mundu ideal batean, automatikoki desagertu beharko luke errugabeko sufrimendu orok. Salbatzaile ikusgarri eta gailena izateko eskaintza egin zion Deabruak Jesusi. Jesusentzat, zuzenean Jainkoa tentatzea da hori, eta berehala errefusatu zuen. **Zerbitzari sufritzailearen bideari** jarraitzea erabaki du hark, gizakiekin bat eginda, gizateriaren barruko salbazioa eskaintzen duena, eta ez hodeietatik etorritakoa. Gizaki sufritzaile eta saminduek osatzen dute gizateria; horregatik, salbazioa ez da sufrimendua ezabatzea, onartzea eta maitasun bidez eraldatzea baizik.

Jerusalemera Aitaren nahia betetzera doan Jesusen jarraitzaile egin gaitzala Eukaristiak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senide maiteok egiogun otoitz zeruko Aitari, gizaki guztientzat errukia eta bekatariontzat barkamena eskatuz:

Erantzuna: **Kyrie, eleison!**



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

- Garizumaldi honetan, Jainkoak bere fededunei gaitzaren aurka egiteko, bere okerretatik zuzentzeko eta onbidera itzultzeko behar duten indarra eman diezaien. Egigun otoitz. R/.
- Ondasunez oparo bizi direnek, daukatena behartsuen onerako erabiltzen jakin dezaten, eta mundu honetako ondasunetan liluratuta bizi ez daitezen. Egigun otoitz. R/.
- Gure eskandalu eta epeltasunengatik Elizatik urrundu direnak Jainkoaren familiara itzul daitezen eta Jainkoak geure jarrera horien bekatua barka diezagun. Egigun otoitz. R/.
- Garizumako penitentziaren bidez gure bihotzak, berriz ere, Jainkoaren hitzak fruitu oparoa emango duen lur emankorra izan daitezen. Egigun otoitz. R/.

Entzun, Jauna, munduko basamortutik dei egiten dizun Zure Elizaren otoitza, zabaldu gugana Zure beso errukitsua eta egizu, penitentziaren eta otoitzaren bidez tentaldia garai dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako I. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 126. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Hartu dugun ogi honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
erakutsiezaguzu egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Jaunak pazko-bidea egitera bidaltzen gaitu une honetan; ez goaz bakarrik. Bide hori elkartasunean eta Jaunaren hurbiltasunean egingo dugu.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Etor bedi, Jauna, ugari zure bedeinkapena
zure herriaren gainera;
emaiozu estualdietan itxaropen handiagoa,
tentaldian indar sendoagoa eta betiko salbamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren orde, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (liburuxka honetan, 6. orrialdean).